


SSID eduroam. Blackberry-etarako konfigurazioa.

Zure Blackberry-a UPV/EHUko wifira Eduroam bidez konektatu ahal izateko, 2753 paketeko 7.1 bertsioa (7.1.0.1011) edo goragokoa beharko duzu. Aurreko bertsioek ez dute bermatzen TTLS+PAP euskarria, konfiguraziorako beharrezko duzularik. Dokumentazio hau egiteko, Blackberry 8520 bat baliatu da.

1. **Eduroam estaldura duen tokiren batean** kokatuta, aktiba ezazu Wi-Fi sarea eta terminalaren menu nagusiak, sakatu konexioak gestionatzeko botoiari (“Gestionar conexiones”).



2. Gero, markatu wifia konfiguratu (“Configurar Wi-Fi”) eta pantailan agertzen zaizun “Eduroam” sarea hautatu.



3. Honako datu hauek erabili behar dituzu konfiguratzeko:

Izena (Nombre):	eduroam
SSID:	eduroam
Segurtasun mota (Tipo de seguridad):	WPA/WPA2
Enterprise azpimota (Subtipo Enterprise):	EAP-TTLS
Erabiltzailearen izena (Nombre de usuario):	erabiltzaile-izena@ehu.es
Pasahitza (Contraseña)	Zeure pasahitza
CA ziurtagiria (Certificado de CA):	Bat ere ez
Barne loturaren segurtasuna (Seguridad de vínculo interno):	EAP-PAP
Zerbitzariaren gaia (Asunto del servidor):	Hutsik
SAN zerbitzarietarako (SAN para servidores):	Hutsik

Zerbitzariaren ziurtagiria baliozkotzea desaktibatu

(Desactivar validación del certificado del servidor):	Aktibatuta
SSID barreiatua (SSID difundido):	Aktibatuta
IP eta DNS automatikoki eskuratu (Obtener automáticamente IP y DNS):	Aktibatuta
Sarrera guneen arteko komunikazioa baimendu (Permitir comunicación entre puntos de acceso):	Aktibatuta

4. Behin konfiguratutik, gorde eta konektatzeko sakatu (“Guardar y conectar”), konfigurazioa gordeko da eta SSID eduroam-era konektatuko da.

